



# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

VII. legegintzaldia

Iruña, 2008ko martxoaren 28a

29. ZK.

### A U R K I B I D E A

#### E SAILA:

##### **Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:**

- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da beharrezkoa den araudia gara dezan Nafarroako hezkuntza bereziaren arloan. Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak aurkeztu du (3. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Hezkuntza Departamentuak bere gain har dezan “Gela osasungarriak, nerabe trebeak” izeneko materialaren argitalpenaren kostua, Osasun Departamentuaren ezezkia dela eta. Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkeztu du (4. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da zenbait gai kontuan har daitezten Oinarrizko irakaskuntzarako testu-liburua finantzatzeari buruzko Foru Legearen erregelamendu bidezko garapenean. Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkeztu du (5. or.).

#### F SAILA:

##### **Galderak:**

- Galdera, Nafarroako Kulturaren Kontseiluak 2003-2007 epealdian eginiko jardueri buruzkoa, Román Felones Morrás jaunak egina (6. or.).
- Galdera, Nafarroako Turismo Kontseiluari buruzkoa, Román Felones Morrás jaunak egina (7. or.).
- Galdera, lurralde antolamenduko planetan Nafarroa Atlantikorako aurreikusten diren museo etnografikoei buruzkoa, Aitor Etxarri Pellejero jaunak egina (8. or.).
- Galdera, Belateko mendatean konifero-espezieen landatze esperimantalari buruzkoa, José Ángel Agirrebengoa Imaz jaunak egina (9. or.).
- Galdera, Nafarroako Gobernuaren fundazioei 2003tik 2007ra bitarteko ekitaldietan eginiko sortze zuzkinduren eta transferentzien zenbatekoei buruzkoa, Patxi Zabaleta Zabaleta jaunak egina (10. or.).
- Galdera, jakiteko zer araudi aplikatzen zaion Nafarroako Gobernuaren fundazioetako lanpostuak betetzeari, Patxi Zabaleta Zabaleta jaunak egina (10. or.).
- Galdera, Nafarroako Gobernuaren fundazio publikoetan enplegatutako pertsona kopuruari eta horien nor-tasunari buruzkoa, Patxi Zabaleta Zabaleta jaunak egina (11. or.).

—Galdera, Nafarroako Gobernuak fundazio publikoei emandako jarraibideei buruzkoa, Patxi Zabaleta Zabaleta jaunak egin (11. or.).

—Galdera, jakiteko zergatik 2007an ez den inolako programarik prestatu Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuaren eta Iruñeko Udalaren arteko 2005-2007 eperako jardun bateraturako plana, hirigintza, lurzoru eta etxebizitza arlokoa, garatzea ahalbidetzeko. Galdera erretiratzea (12. or.).

#### G SAILA:

##### **Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:**

—19/2008 Ebazpena, martxoaren 14koa, Nafarroako Foru Komunitateko arartekoarena. Horren bidez, Inés Monreal Azcárate andrea arartekoaren ahokulari tekniko izendatzen da (13. or.).

—Arartekoaren bulegoko langile funtzionarioen plantilla organikoa. Akats zuzenketa (13. or.).

—Nafarroako Aurrezki Kutxako Kontseilu Nagusiko kideak hautatzeko arauak (14. or.).

#### H SAILA:

##### **Bestelako testu arau-emaileak:**

—Nafarroako Parlamentuko Lehendakartzaren Ebazpena, 2008ko martxoaren 10ekoa, Nafarroako Parlamentuko Mahaiak baimendutako bisitak eta lan bilerak egiteko moduaren gaineko arauak onesten dituen (15. or.).

**E saila:**  
**JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK**

**Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da beharrezkoa den araudia gara dezan Nafarroako hezkuntza bereziaren arloan.**

*SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko martxoaren 17an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita beharrezkoa den araudia gara dezan Nafarroako hezkuntza bereziaren arloan

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2008ko martxoaren 17an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

**MOZIOAREN TESTUA**

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, Nafarroan hezkuntza berezia arautzeari buruzko ondoko mozioa aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta onesteko:

Zioen azalpena

Ezgaitasunekin loturiko hezkuntza premia bereziak dituzten ikasleentzako arreta nabarmen hobetu da azken hamabost urteotan. Segregazio neurrien aurrean, eskola-integrazioa da –normalizazioaren eta barne-hartzearen printzipioak oinarri– gure hezkuntza sistemaren funtsezko ardatzetako bat, zeinetan aniztasuna aberasgarri den eta pertsona guztiak eremu pertsonalean nahiz hezkuntza eta gizarte eremuetan guztiz garatzea bilatzen den.

Eskolatzere-eredu horrek berekin dakar hezkuntza premia bereziko ikasleak soil-soilik eskolatzeko hezkuntza bereziko gela edo ikastetxeetan baldin eta

beren premiak ezin badira ikastetxe arruntetan artatu aniztasunari aurre egiteko neurrien esparruan.

Aniztasunari aurre egiteko planteamendu berri horren ondorioz, nabarmen aldatu dira hezkuntza bereziko ikastetxeetan hezten diren ikasleen premiak eta profila, hainbeste non haur eta lehen hezkuntzako ikastetxeen antolamendua arautzen duen esparrua ez baita egokia hezkuntza bereziko ikastetxeen errealitateari erantzuteko.

Hortaz, hezkuntza bereziari koherentzia eta antolamendu hobea emate aldera, arautu beharra dago funtsezko zenbait alderdi, hala nola barne araudia (ikasle horiengan eragina duten arazoek ez dute zerikusirik haur eta lehen hezkuntzako ikastetxeetan eragina duten arazoekin), ikastetxe-etako barne antolamendua, ordutegiak, esku hartzen duten irakasle eta langileak, eskolatzeko konbinatua, garraioa eta jantokia, Hezkuntza Berezirako Baliabideen Zentroak hezkuntza bereziaren esparruan izan beharreko zeregina...

Hezkuntza Berezirako Baliabideen Zentroa sortu zuen 76/1993 Foru Dekretuaren eta eskolatzemoduei buruzko foru arauen ondotik, partzialak eta zehatzak izan dira Nafarroan arautu diren alderdiak.

Ekimen honen bidez, araudi bat eman nahi zaio Nafarroako hezkuntza sistemari eta, lehentasunez, hezkuntza bereziari, hezkuntza mota horren berezitasunak antolatu eta koherentziaz jarduteko esparru bat izan dezan.

Hori guztia dela-eta, Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak ondoko mozioa aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du beharrezkoa den araudia gara dezan Nafarroako hezkuntza bereziaren arloan.

Iruñean, 2008ko martxoaren 7an

Eleduna: Roberto Jiménez Alli

## **Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da Hezkuntza Departamentuak bere gain har dezan “Gela osasungarriak, nerabe trebeak” izeneko materialaren argitalpenaren kostua, Osasun Departamentuaren ezezkoa dela eta.**

### *NAFARROA BAI PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko martxoaren 17an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernuak premiatzen baita Hezkuntza Departamentuak bere gain har dezan “Gela osasungarriak, nerabe trebeak” izeneko materialaren argitalpenaren kostua, Osasun Departamentuaren ezezkoa dela eta.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Mozioa Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2008ko martxoaren 17an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### **MOZIOAREN TESTUA**

Patxi Zabaleta eta Maiorga Ramírez Nafarroa Bai parlamentu-taldeko eledunek, Legebiltzarreko Erregelamenduaren babesean, honako mozioa aurkeztu dute, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozka dadin:

Zioak

Bizitzaren hastapen osasuntsua bermatzea eta gizarte nahiz osasun arloko baliabide eta gaitasunen garapena sustatzea eskolaurrean nahiz eskola-adinean. Horra osasuna sustatzeko oinarritzko planteamendu bat, Osasun arloak pertsona guzti-ei begira XXI. mendean dituen helburuetako bat ere badena (Osasuna 21, Osasunaren Mundu

Erakundea, 1999); izan ere, haren 13. helburuan planteatzen denez, 2015erako, neska-mutikoen % 95ek izan beharko luke osasuna sustatzen duen ikastetxe batera joateko aukera.

Nazioan nahiz nazioartean oso onartuta dago ikastetxea eta hezkuntza-erkidegoa gune egokiena direla osasun arloko prebentzio, hezkuntza eta sustapeneko jarduerak gauzatzeko.

Zenbait azterlanek argiro planteatzen dute ikastetxeetan osasunerako hezteko zein eragingarria den, ikastetxeak leku errentagarriak baitira, haur eta gaztetxoek osasuna sustatzea helburu duten osasuna sustatzeko esku-hartzei dagokionez.

Esparru horretan, eta helburuak komunak direla aitortuz, oparoa izan da Osasunaren eta Hezkuntzaren arteko lankidetzaren esperientzia, hala hezkuntza eta osasun ministerioen artekoa nola departamentuen, ikastetxeen, udalen, erakundeen, elkarten eta abarren artekoa.

Hori guztia dela eta, Nafarroa Bai parlamentu-taldeak honako erabaki proposamena aurkeztu du, eztabaidatu eta bozka dadin:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuak premiatzen du Hezkuntza Departamentuak bere gain har dezan, ikusita Osasun Departamentuaren ezetza, “Gela osasungarriak, nerabe trebeak” izeneko irakasleen materialaren argitalpenaren kostua, edo, betiere, argitalpen horren garaztea desblokeatzea, material hori ezagutu edo/eta erabili nahi duten irakasleek lehenbailehen egin ahal izan dezaten.

Iruñean, 2008ko martxoaren 13an

Foru parlamentariak: Patxi Zabaleta Zabaleta eta Maiorga Ramírez Erro

## **Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da zenbait gai kontuan har daitezten Oinarrizko irakaskuntzarako testu-liburua finantzatzeari buruzko Foru Legearen erregelamendu bidezko garapenean.**

### *NAFARROA BAI PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko martxoaren 17an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita zenbait gai kontuan har daitezten Oinarrizko irakaskuntzarako testu-liburua finantzatzeari buruzko Foru Legearen erregelamendu bidezko garapenean.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2008ko martxoaren 17an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### **MOZIOAREN TESTUA**

Patxi Zabaleta eta Maiorga Ramírez Nafarroa Bai parlamentu-taldeko eledunek, Legebiltzarreko Erregelamenduaren babesean, honako mozioa aurkeztu dute, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozka dadin:

Zioak

Nafarroako Parlamentuak Oinarrizko irakaskuntzarako testu-liburuak finantzatzeari buruzko Foru Legea onetsiko du. Legeak, baina, erregelamendu bidezko ondoko garapenerako uzten ditu

zenbait auzi, garrantzi handia dutenak legearen garapena optimizatzeko orduan eta gure gizartearen garapena bermatuko duten estrategiak definitzeko orduan.

Horietako bat da ikastetxeek testu-liburuak eta curriculum-materialak libreki aukeratzeko izan beharreko autonomia, behar bezala definitu behar baita aipatu legea erregelamendu bidez garatzen denean. Material horiek erosteko formula ere jaso beharra dago, ekainaren 22ko 10/2007 Legearen 1.1 artikuluan ezarrita dagoenari jarraikiz.

Horregatik guztiagatik, Nafarroa Bai parlamentu-taldeak honako erabaki proposamena aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Oinarrizko irakaskuntzarako testu-liburuak finantzatzeari buruzko Foru Legearen erregelamendu bidezko garapenean kontuan har ditzan ondokoak:

1) Erregelamendu bidezko garapenak "curriculum-zehaztapenaren hirugarren maila" errespetatuko du, hau da, ikastetxeek zeinek bere curriculum-proiektuarekin bat egoki iritzitako testu-liburuak eta curriculum-materialak aukeratzeko izan beharreko autonomia errespetatuko du.

2) Erregelamendu bidezko garapenak zenbait formula jasoko ditu, aipatu legean adierazitako materialak gure erkidegoko liburu-saltzaileei eros dakizkien.

Iruñean, 2008ko martxoaren 13an

Eledunak: Patxi Zabaleta Zabaleta eta Maiorga Ramírez Erro

---

**F saila:**  
**GALDERAK**

---

## **Galdera, Nafarroako Kulturaren Kontseiluak 2003-2007 epealdian eginiko jardueri buruzkoa.**

### *ROMÁN FELONES MORRÁS JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko martxoaren 17an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Román Felones Morrás jaunak aurkeztutako galdera, Nafarroako Kulturaren Kontseiluak 2003-2007 epealdian eginiko jardueri buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2008ko martxoaren 17an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### **GALDERAREN TESTUA**

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko foru parlamentari Román Felones Morrás-ek, Legebiltzarreko Erregelamenduko 184. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Zioen azalpena

Nafarroako Kulturaren Kontseilua azaroaren 21eko 24/1984 Foru Dekretuaren bidez sortu zen, eta Kultura eta Turismo Departamentuari aholku eta laguntza emateko organoa da. Kontseiluko kide dira, kontseilariak eta Kultura zuzendari nagusiaz gain, kontseilariak izendatutako 20 pertsona gehienez ere, Kultura Zuzendaritza Nagusiarekin lotutako erantzukizunekin zerikusia dutenak, kultur jarduera nahiz artistikoaren eremuetan duten presentzia nabarmena, ezagutza espezializatua edo prestigio publikoa izateagatik.

Erakunde hori jardunean da harrezkero, aldaketa gutxi batzuk gorabehera, egindako zerbitzuen administrazio-egokitzapenari esker.

Kontseiluak 2003-2007 legegintzaldiari dagokion ibilbidea oraintsu bukatu duenez eta 2007-2011 aldirako berritu denez, egoki da Kontseiluaren bilakaeraren balantzea egitea, haren jardura balioeste aldera eta, beharrezkoa bada, funtzionamendu-ildo berriak proposatze aldera.

Hori dela-eta, hauxe jakin nahi da:

Galderaren testua

**1.** Nafarroako Kulturaren Kontseiluak 2003-2007 aldian izan dituen kideen zerrenda.

**2.** Lau urte horietan zehar eginiko osoko bilkuren zerrenda eta egunak. Jorratutako gaiak. Kontseilariaren ekimenez eginiko deialdiak eta Nafarroako Kultura Kontseiluko kideen ekimenez eginikoak.

**3.** Osoko Bilkurak deitu dituen espezialistak, eta espezialista horiek aztertu dituzten gaien zerrenda.

**4.** Nafarroako Kulturaren Kontseiluko kideek sustatuta Osoko Bilkurak aztertutako ekimenak, eta ekimen horiek onetsi diren ala ez.

**5.** Batzordeak osatzen dituzten pertsonen zerrenda. Egindako bileren zerrenda eta egunak. Jorratutako gaiak.

**6.** Batzordeek deitu dituzten espezialistak, eta espezialista horiek aztertu dituzten gaien zerrenda.

**7.** Nafarroako Kultura Kontseilua sortu zuen foru dekretuan ezarritakoaren kariatara Kontseiluak egindako jarduketan balantze orokorra.

**8.** Nafarroako Kultura Kontseilua sortu zuen foru dekretuan ezarritako helburuak lortzerakoan atzemandako gabeziak.

9. Kontseiluaren osaera eta eginkizunei dagokienez aurreikusitako aldaketak.

Iruñean, 2008ko martxoaren 7an

Foru parlamentaria: Román Felones Morrás

## **Galdera, Nafarroako Turismo Kontseiluari buruzkoa.**

### **ROMÁN FELONES MORRÁS JAUNAK EGINA**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko martxoaren 17an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Román Felones Morrás jaunak aurkeztutako galdera, Nafarroako Turismo Kontseiluari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2008ko martxoaren 17an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### **GALDERAREN TESTUA**

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko foru parlamentari Román Felones Morrás-ek, Legebiltzarreko Erregelamenduko 184. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Zioen azalpena

Otsailaren 9ko 34/2004 Foru Dekretuak arautzen ditu Nafarroako Turismo Kontseiluaren osaera, antolamendua eta funtzionamendua. Foru Komunitateko administrazioarentzako turismoaren arloko kontsulta eta aholku organo gisa eratu da, eta arlo horretako erakunde, instituzio eta entitate garrantzitsuenak bertan egonen direla bermatzen du.

Kontseiluak 2003-2007 legegintzaldiari dagokion ibilbidea oraintsu bukatu duenez eta 2007-2011 aldirako berriro denez, egoki da Kontseiluaren bilakaeraren balantzea egitea, haren jardueraren balioeste aldera eta, beharrezkoa bada, funtzionamendu-ildo berriak proposatze aldera.

Hori dela-eta, hauexek jakin nahi da:

Galderaren testua

1. Kontseiluak zein egunetan hasi zituen jarduerak, arestian aipatutako foru dekretua garatu ondotik.

2. 2008ra bitarte kontseiluko kide izan diren pertsona eta erakundearen zerrenda.

3. Egindako osoko bilkuren zerrenda eta egunak. Jorratutako gaiak. Kontseilariaren ekimenez eginiko deialdiak eta Kontseiluko kideen ekimenez eginikoak.

4. Lehendakariak Kontseiluaren bileretan parte har dezaten gonbidatu dituen entitate, aditu edo teknikarien zerrenda, zergatik gonbidatu dituen eta zer gai jorratu dituzten.

5. Kontseiluko kideek sustatuta Osoko Bilkurak aztertutako ekimenak, eta ekimen horiek onetsi diren ala ez.

6. Aipatu dekretuko 2.e) artikuluan ezarritakoari jarraikiz eginiko aldizkako txostenak.

7. Abian jarritako batzordeen zerrenda. Batzordeak osatu dituzten pertsona edo instituzioen zerrenda. Egindako bileren zerrenda eta egunak. Jorratutako gaiak.

8. Kontseilua sortu zuen foru dekretuan ezarritakoaren kariatara Kontseiluak egindako jarduketaren balantze orokorra.

9. Kontseilua sortu zuen foru dekretuan ezarritako helburuak lortzerakoan atzemandako gabeziak.

10. Kontseiluaren osaera eta eginkizunei dagokienez aurreikusitako aldaketak.

Iruñean, 2008ko martxoaren 11n

Foru parlamentaria: Román Felones Morrás

## **Galdera, lurralde antolamenduko planetan Nafarroa Atlantikorako aurreikusten diren museo etnografikoei buruzkoa.**

*AITOR ETXARRI PELLEJERO JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko martxoaren 17an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Aitor Etxarri Pellejero jaunak aurkeztutako galdera, lurralde antolamenduko planetan Nafarroa Atlantikorako aurreikusten diren museo etnografikoei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2008ko martxoaren 17an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### **GALDERAREN TESTUA**

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Aitor Etxarri Pellejerek, Legebiltzarreko Erregelamenduaren babesean, honako galdera hau egin dio Nafarroako Gobernuko Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuari, idatziz erantzun diezaion:

Lurraldearen antolamenduari buruzko planetan hiru proiektu jasotzen dira, museo etnografiko bana jartzeko Leitzan, Baztanen eta Arizkunen (hala dago jasota Lurraldearen antolamenduko 2. planeko lurraldearen okupazioari buruzko estrategian –Nafarroa Atlantikoa–, 2.2 planoan hain zuzen ere: ingurune fisikoa-natur eta kultur baliabideak, natur eta kultur ondarea). Museoak honakoak dira: harri-jasotzailearena Leitzan, Caro Baroja-arena Baztanen eta Santxotena Arizkunen.

Hori dela-eta, parlamentari honek hauxe jakin nahi du:

1- Museo etnografiko bakoitzeko obren hasiera eta amaiera datak.

2- Nafarroako Gobernuak zer kontusail edo laguntza ekonomiko duen museo etnografiko bakoitzerako.

3- Museo horien proiektua.

4- Museo etnográfico horien obretarako aurrekontua.

Iruñean, 2008ko martxoaren 13an

Foru parlamentaria: Aitor Etxarri Pellejero



## **Galdera, Belateko mendatean konifero-espezieen landatze esperimentalari buruzkoa.**

*JOSÉ ÁNGEL AGIRREBENGOA IMAZ JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko martxoaren 17an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea José Ángel Agirrebengoa Imaz jaunak aurkeztutako galdera, Belateko mendatean konifero-espezieen landatze esperimentalari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2008ko martxoaren 17an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### **GALDERAREN TESTUA**

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari José Ángel Agirrebengoa Imazek, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako galdera hau egin du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Belateko mendatean bada konifero-espezieen landatze esperimental bat –Baztango udalerrian dago, Ultzamako Udalarekiko mugatik gertu, eta Nafarroako Gobernuaren jabetzakoa edo haren menpekkoa da–, eta han, Landa Garapenerako eta Ingurumeneko Departamentuaren menpeko zerbitzu batek edo Nafarroako Gobernuak kontratatutako hirugarrenek egindako bakantze- eta oihan-lan batzuk egin eta gero, zenbait gabezia atzeman dira, gure ustez sute arrisku handia eragiten dutenak.

Zehazki, argi ikus daiteke hantxe bertan ezen bakantze-laneko adarrak nahiz bestelako materialak utzi direla abandonatuta, basoberritze horretan

ko bai kanpoko aldean bai barrukoan. Ongi ezaguna da konifero-espezieak oso arriskutsuak direla suari nahiz oihaneko suteei begira.

Gure ustez, gertakari horrek Landa Garapenerako eta Ingurumeneko Departamentuaren ardura larri eta agerikoa dakarke, hain baita handia oihaneko sutea gertatzeko arriskua bakantzearen ondorioz gelditu diren hondakinen masa itzelaren eraginez, areago kontuan hartzen badugu gertu gertu daudela N-121-A errepide zaharra eta egungo NA-120 errepidea, Iruñeko norabideko ezkerreko aldean. Oihan-hondakin horiek hainbat arinen garbitu beharko lirakeela uste dugu, konponezina gerta zitezkeen kalteei aurrea hartze aldera.

Hori dela-eta, kalteak ekiditea helburu, hauxe jakin nahi dut:

a) Landa Garapenerako eta Ingurumeneko Departamentua jabetzen al da egoeraz eta aipatu landatzean den arrisku handiaz?

b) Kontuan izanda lan horiek egin zirenetik iragandako denbora (urtebete baino gehiago), egindako lanak egiteko baimena eman al zuen bere garaian Landa Garapenerako eta Ingurumeneko Departamentuak?

c) Departamentuak hartu al ditu hartu beharreko neurriak, berehalakoak, arazoa konpontzeko?

d) Departamentuaren ustez, egokia al da basoberritzea mantentzeko modu hori bakantze bat egin eta gero?

e) Departamentuaren ustez, partikularrei begira eredugarria al da egindako bakantzearen ondorioz basoberritze hori zein egoeratan utzi den?

Iruñean, 2008ko martxoaren 13an

Foru parlamentaria: José Ángel Agirrebengoa Imaz

## **Galdera, Nafarroako Gobernuaren fundazioei 2003tik 2007ra bitarteko ekitaldietan eginiko sortze zuzkinduren eta transferentzien zenbateko- ei buruzkoa.**

*PATXI ZABALETA ZABALETA JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko martxoaren 17an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Patxi Zabaleta Zabaleta jaunak aurkeztutako galdera, Nafarroako Gobernuaren fundazioei 2003tik 2007ra bitarteko ekitaldietan eginiko sortze zuzkinduren eta transferentzien zenbateko-  
ei buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua aginduta-  
koari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2008ko martxoaren 17an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### **GALDERAREN TESTUA**

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Patxi Zabaleta Zabaletak, Legebiltzarreko Erregelamenduaren babesean, honako galdera hau egin dio Nafarroako Gobernuko Lehendakari-tza, Justizia eta Barne Departamentuari, idatziz erantzun diezaion:

Zenbat egiten dute Nafarroako Gobernuaren fundazioei 2003tik 2007ra bitarteko ekitaldietan eginiko sortze-zuzkidurek eta transferentziek?

Iruñean, 2008ko martxoaren 13an

Foru parlamentaria: Patxi Zabaleta Zabaleta

## **Galdera, jakiteko zer araudi aplikatzen zaion Nafarroako Gobernuaren fundazioetako lanpostuak betetzeari.**

*PATXI ZABALETA ZABALETA JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko martxoaren 17an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Patxi Zabaleta Zabaleta jaunak aurkeztutako galdera, jakiteko zer araudi aplikatzen zaion Nafarroako Gobernuaren fundazioetako lanpostuak betetzeari.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua aginduta-  
koari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2008ko martxoaren 17an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### **GALDERAREN TESTUA**

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Patxi Zabaleta Zabaletak, Legebiltzarreko Erregelamenduaren babesean, honako galdera hau egin dio Nafarroako Gobernuko Lehendakari-tza, Justizia eta Barne Departamentuari, idatziz erantzun diezaion:

Zer araudi aplikatzen da Nafarroako Gobernuaren fundazioetako langileak kontratatzean edo/eta horietan lanpostu bat eskuratzean? Aplikatzen al da, modu osagarrian bada ere, Nafarroako funtzio publikoaren estatutua eta horren araudi osagarria lan-harreman horiek gauzatzekoan?

Iruñean, 2008ko martxoaren 13an

Foru parlamentaria: Patxi Zabaleta Zabaleta

## **Galdera, Nafarroako Gobernuaren fundazio publikoetan enplegatutako pertsona kopuruari eta horien nortasunari buruzkoa.**

*PATXI ZABALETA ZABALETA JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko martxoaren 17an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Patxi Zabaleta Zabaleta jaunak aurkeztutako galdera, Nafarroako Gobernuaren fundazio publikoetan enplegatutako pertsona kopuruari eta horien nortasunari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2008ko martxoaren 17an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### **GALDERAREN TESTUA**

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Patxi Zabaleta Zabaletak, Legebiltzarreko Erregelamenduaren babesean, honako galdera hau egin dio Nafarroako Gobernuko Lehendakari-tza, Justizia eta Barne Departamentuari, idatziz erantzun diezaion:

Zer langile-kopuru dituzte Nafarroako Gobernuaren fundazio publikoetako bakoitzak? Zein da langile horien izena? Langileen zerrenda nahi genuke, antzinatasuna eta lan-kategoria adierazita.

Iruñean, 2008ko martxoaren 13an

Foru parlamentaria: Patxi Zabaleta Zabaleta

## **Galdera, Nafarroako Gobernuak fundazio publikoei emandako jarraibideei buruzkoa.**

*PATXI ZABALETA ZABALETA JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko martxoaren 17an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Patxi Zabaleta Zabaleta jaunak aurkeztutako galdera, Nafarroako Gobernuak fundazio publikoei emandako jarraibideei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2008ko martxoaren 17an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### **GALDERAREN TESTUA**

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Patxi Zabaleta Zabaletak, Legebiltzarreko Erregelamenduaren babesean, honako galdera hau egin dio Nafarroako Gobernuko Lehendakari-tza, Justizia eta Barne Departamentuari, idatziz erantzun diezaion:

Eman edo jakinarazi al da jarraibiderik, Nafarroako Gobernuko fundazio publikoek Kontratu publikoei buruzko Foru Legea eta Nafarroako Ondareari buruzko Foru Legea aplikatu dezaten bere merkataritza-harremanetan?

Iruñean, 2008ko martxoaren 13an

Foru parlamentaria: Patxi Zabaleta Zabaleta

**Galdera, jakiteko zergatik 2007an ez den inolako programarik prestatu Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuaren eta Iruñeko Udalaren arteko 2005-2007 eperako jardun bateraturako plana, hirigintza, lurzoru eta etxebizitza arlokoa, garatzea ahalbidetzeko.**

*GALDERA ERRETIRATZEA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko martxoaren 17an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Ioseba Eceolaza Latorre jaunak aurkezturiko galdera, jakiteko zergatik 2007an ez den inolako programarik prestatu Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuaren eta Iruñeko Udalaren arteko 2005-2007 eperako

jardun bateraturako plana, hirigintza, lurzoru eta etxebizitza arlokoa, garatzea ahalbidetzeko, erretiratu izanaren berri izan zuela adieraztea.

Galdera hori 2008ko otsailaren 18ko 15. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2008ko martxoaren 17an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

**G saila:**  
**TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA**

**19/2008 Ebazpena, martxoaren 14koa, Nafarroako Foru Komunitateko arartekoarena. Horren bidez, Inés Monreal Azcárate andrea arartekoaren ahokulari tekniko izendatzen da.**

Nafarroako Foru Komunitateko arartekoari buruzko uztailaren 3ko 4/2000 Foru Legeko 40. artikulua ezarritakoa betez

EBATZI DUT:

**Lehena.-** Inés Monreal Azcárate andrea behin-behineko langile izendatzea, arartekoaren aholkulari teknikoaren eginkizunak betetzeko. Izendapenak 2008ko martxoaren 14tik aurrera izanen ditu ondorioak.

**Bigarrena.-** Xedatzea ezen izendapen horrek sortuko duen gastua ordainduko dela gastuen

aurrekontu indarduneko 1100 zenbakiko kontusailaren kargura: "behin-behineko langileen ordainsariak"–.

**Hirugarrena.-** Erabaki hau interesdunari igortzea eta Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2008ko martxoaren 14an

Nafarroako arartekoa: Francisco Javier Enériz Olaechea

**Arartekoaren bulegoko langile funtzionarioen plantilla organikoa.**

**AKATS ZUZENKETA**

Arartekoaren bulegoko funtzionarioen plantilla organikoan akatsa dagoela ikusita –2008ko martxoaren 14ko 26. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen–, plantilla behar bezala zuzenduta argitaratu da. Horra:

Iruñean, 2008ko martxoaren 14an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

<b>NAFARROAKO ARARTEKOAREN BULEGOA</b>									
	<b>Kop.</b>	<b>Maila</b>	<b>Izen. lib.</b>	<b>Esklusi-bitatea</b>	<b>Bateraezintasuna</b>	<b>Lanpostu osagarria</b>	<b>Mailako osagarria</b>	<b>Osagarri berariazkoa</b>	<b>Arrisku berezikoa</b>
Administrazio kudeaketako teknikaria	1	B			35	28		20	
Administraria	3	C				41,68	12		
Gelazaina	1	D				32	15		

## Nafarroako Aurrezki Kutzako Kontseilu Nagusiko kideak hautatzeko arauak.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko martxoaren 17an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrarekin bat, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Aurrezki Kutzaren —hemendik aurrera, Kutxa— Estatutuetako 9. artikulua ezarri zuen Kontseilu Nagusia, besteak beste, Nafarroako Parlamentuak proposatu eta Nafarroako Gobernuak lehendakariak izendatutako bost kide osatuko dutela; Nafarroako Parlamentuak, Estatutuen 11. artikuluari jarraituz, kide horiek Legebiltzarreko talde politikoei proposatutako pertsonen artean hautatuko ditu, betiere Legebiltzarrak zehaztutako prozedurari jarraituz. Pertsona horiek ez dute zertan parlamentariak izan.

Horrenbestez, Kontseiluko kide horiek hautatzeko arauak onetsi behar ditu Parlamentuak, Erregelamenduko 37.1.9 artikuluari jarraituz. Hori dela eta, ERABAKI DUGU:

**Lehena.-** Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Aurrezki Kutzako Kontseilu Nagusiko kide izateko proposatu behar dituen pertsonak hautatzeko arauak onestea. Hona arau horiek:

1. Nafarroako Parlamentuak bost pertsona hautatuko ditu Nafarroako Gobernuak lehendakariak Nafarroako Aurrezki Kutzako Kontseilu Nagusiko kide izenda ditzen, Kutzako Estatutuetan xedatuaren arabera. Estatutu horiek 2004ko otsailaren 9an onetsi zituen Nafarroako Gobernuak.

2. Bete beharreko postuak zenbat diren, parlamentu-talde bakoitzak edo foru parlamentarien elkarte bakoitzak beste horrenbeste izangai aurkeztu ahalko ditu, Kutzako Estatutuetako 16., 17. eta 18. artikuluetan ezarritako baldintzak betetzen dituzten pertsonen artean aukeratuta.

3. Legebiltzarreko Mahaiari igorritako idatziz aurkeztuko dituzte hautagaiak parlamentu-taldeek eta foru parlamentarien elkarteek, eta, idatzi horretan, proposatutako hautagaien onarpena

jaso beharko da. Proposatutako hautagaiak Estatutuetako 17. eta 18. artikuluan aipatzen diren debekurik eta bateraezintasunik ez dutela erabaki ahal izateko, proposamen-idatziei erantsiko zaie hautagaiak 16. artikuluan ezarritako baldintzak bete eta, horrenbestez, aipatu debeku edo bateraezintasunik ez dutela dioten aitortpena.

4. Parlamentu-taldeek Nafarroako Aurrezki Kutzako Kontseilu Nagusiko kideak izateko hautagaiak aurkezteko epea 2008ko apirilaren 3ko 12:00etan bukatuko da.

5. Hautagaien zerrendak aurkezteko epea amaiturik, proposatutako hautagaiak baldintzak betetzen ote dituzten erabakitzeari ekinen dio Mahaiak, eta ondoren, kasua bada, hautagaiak aldarrikatuko ditu.

6. Nafarroako Aurrezki Kutzako Kontseilu Nagusiko bost kideak aldi berean hautatuko dira, Legebiltzarreko Osoko Bilkuran isilpeko bozketa eginda.

7. Txartelen bidez eginen da bozketa, eta foru parlamentari bakoitzak, zenbat postu bete behar diren, beste horrenbeste izen jarri ahalko ditu txartelan.

8. Mahaiak boto-kontaketa egin eta boto gehien eskuratu dituzten bost hautagaiak hautatu direla aldarrikatuko du.

9. Berdinketarik badago eta horrek Parlamentuaren proposamenean eragiten badu, berdinketak boto kopuru berbera lortu dutenen arteko beste bozketa baten bidez ebatziko dira. Berdinketak bere horretan segitzen badu, hurrenez hurreneko bozketak eginen dira boto kopuru berbera duten hautagaien artean berdinketa desegin arte.

**Bigarrena.-** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2008ko martxoaren 17an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

---

**H saila:**  
**BESTELAKO TESTU ARAU-EMAILEAK**

---

## **Nafarroako Parlamentuko Lehendakartzaren Ebazpena, 2008ko martxoaren 10ekoa, Nafarroako Parlamentuko Mahaiak baimendutako bisitak eta lan bilerak egiteko moduaren gaineko arauak onesten dituena.**

Erregelamenduan ez dago parlamentu-taldeek edo foru parlamentarien elkarteek eskatu eta Mahaiak onesten dituen bisitei buruzko araudi espresik, eta 54.3 artikuluko lan bilerak bezala izapidetzen dira; hartara, bisitak lan bileren aldea bat lirateke; izan ere, informazioa jasotzeko helburua dute eta ez dago horiei buruzko idatzizko formalismorik, ez baita aktarik egiten, eta alde horretatik begiratuta berdinak dira, baina, lan bilerak ez bezala, bisitak Legebiltzarretik kanpo egiten dira.

Orain arteko bisitetan ez da eragozpen handirik sortu, ez horiek izapidetzan ez bisitak egitean ere, bisita egin dutenen nahiz bisita jaso dutenen laguntza izan dugulako, baina lan bileren nahiz bisiten kasuan agerian gelditu dira hobetu beharreko zenbait alderdi, arau gutxi batzuk emanda hobe daitezkeenak, bisiten araubidea zehazte aldera eta bisitak nahiz lan bilerak era antolatuago batean egin daitezela laguntze aldera.

Horrenbestez, Eledunen Batzarrak aldeaz aurretik erabakia hartuta eta Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduko 40.2 artikuluan ezarritakoarekin bat, lan bilerak eta bisitak izapidetu eta egiteari buruzko ondoko arauak onetsi dira.

### **1. Lan bilerak**

1. Parlamentu-taldeek, foru parlamentarien elkarteek eta foru parlamentariak Mahaiari eskatu ahalko diote lan bilerak egin daitezen, interes publikoko edozein gairi buruz informazioa jasotzeko haien ustez beharrezkoak diren pertsona, kargu, elkarte nahiz entitateekin. Mahaiak, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, eskatutako lan bilerak egin daitezen erabaki ahalko du. Bilera horietara hedabideak joan ahalko dira, baldin eta eskatzaileak edo agerraldia egin behar duenak eskatuta Mahaiak hori erabakitzen bada.

2. Eskarian jasota ageriko dira agerraldiaren xedea nahiz deitu beharreko pertsona edo entitateak, eta, deitutakoa entitate bat baldin bada,

ondokoak zehaztuko dira: haren legezko ordezkaria, helbidea, telefonoa eta agerraldia etorriko direnekin harremanetan jarri ahal izateko beste edozein datu. Batzordera bost ordezkari etorri ahalko dira gehienez ere. Pertsona eta entitate pribatuen kasuan, eskatzaileek haiei galdetu behar ko diete ea agerraldia egitea onartzen duten.

3. Lan bilera egiteko erabakia jakinaraziko zaio deitu beharreko pertsonari, eta orobat adieraziko zaio Mahaiko eta Eledunen Batzarreko Idazkaritza geroago harekin harremanetan jarriko dela, agerraldiaren eguna eta ordua zehazte aldera.

4. Batzordeko eztabaidetako arau komunei eta agerraldietarako ezarritakoei jarraikiz egiten dira lan bilerak, eta haietan Parlamentuko ordena eta gizalegea errespetatuko dira.

5. Lan bilerak taxuz egite aldera, ondokoak jakinaraziko zaizkie agerraldia egin behar dutenei:

a) Identifikatu egin beharko direla Parlamentuko sarreran, eta bilerara etorriko diren pertsonen eragiten dien aldaketarik baldin badago, aldaketaren berri eman beharko diotela, bezperan gutxienez ere, Mahaiko eta Eledunen Batzarreko Idazkaritzari.

b) Bilera kasuko batzordeko buruak zuzenduko duela. Hark, eskatzailearen mintzaldiaren ondoren, hitza emanen die agerraldia egin behar dutenei, agerraldiaren xede den informazioa eman dezaten, eta ondoren batzordeko kideek izanen dute hitza, galderak egin edo haien jarrera azaltzeko. Agerraldia egiten ari direnek emandako erantzunarekin bukatuko da bilera, baina hori ez da eragozpen izanen Batzordeko buruak, egoki iritziz gero, hitz egiteko beste txanda bat abiaraz dezan.

c) Agerraldia egiten duten pertsonen kopurua gehienez ere bostekoa izanen dela eta agerraldiak berrogeita bost minutu iraunen duela gehienez ere.

d) Agerraldian euskaraz aritzeko edo baliabide informatikoren bat erabiltzeko asmoa baldin badute garaiz jakinarazi beharko diotela Mahaiko eta Eledunen Batzarreko Idazkaritzari.

## 2. Bisitak

1. Parlamentu-taldeek, foru parlamentarien elkarteek eta foru parlamentariak Mahaiari eskatu ahalko diote bisitak egin daitezen, interes publikoko edozein gairi buruz informazioa jasotzeko haien ustez beharrezkoak diren leku, zentro nahiz instalazio publiko edo pribatuetara.

2. Eskarian ondokoak ageriko dira jasota: bisitaren xedea; bisitatu beharreko leku, zentro edo entitatea; horien ardura duten pertsona edo karguak -baldin eta posible bada-, eta bisitatu beharreko lekua nahiz bisitaren gorabeherak zehazteko mintzakide diren pertsonak identifikatzeko beste edozein datu. Leku eta zentro pribatuen kasuan, eskatzaileek haien arduradunei galdetu beharko diete ea bisita onartzen duten.

3. Baldin eta bisitatu beharreko zentro edo lekua administrazio publiko baten menpekoa bada edo zentro itundu edo diruz lagundua bada, alde

aurretik jakinaraziko zaio bisita egiteko asmoa, eta haren lankidetzat bilatuko da bisita taxuz egin dadin, eta hartara bisitaren deialdia igorriko zaio behin bisitaren eguna eta ordua zehaztuta.

4. Baldin eta bisitan zehar informazioa jasotzeko bilerarik egiten bada leku, zentro edo entitatearen ordezkariekin, batzordeko buruak kasuko arduradunarekin hitzartuko du nola egingen den bilera, lan bilera baten gisakoa izan ahalko baita. Baldin eta bisitatutako lekuaren arduradunengandik ez ezik bisitaren xede denarekin lotutako beste pertsona batzuegandik ere jaso nahi bada informazioa, hala ageriko da jasota bisita egiteko eskarian, eta bisitaren xede den lekuan egiten baldin bada horiekiko bilera, beharrezkoa izanen da bisitatutako lekuaren ardura duen pertsona edo agintariak horretarako baimena ematea.

**Azken xedapena.** Indarra hartzea.

Arau hauek Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko dute indarra.

Iruñean, 2008ko martxoaren 10ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

<b>HARPIDETZAREN PREZIOA</b> <b>ALDIZKARI OFIZIALA ETA BILKURA EGUNKARIA</b>	<b>IDAZKARITZA ETA ADMINISTRAZIOA</b> <b>NAFARROAKO PARLAMENTUA</b> «Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziala» Navas de Tolosa, 1 31002 IRUÑA
Urtebete .....	47,00 euro
Aldizkari Ofizialaren prezioa, aleko .....	1,25 »
Bilkura Egunkariaren prezioa, aleko .....	1,40 »